

### **TERMINOAK ETA BALDINTZAK**

Matrikula egitean, baieztatzen duzu Ulibarri Euskaltegia SK-k eskaintzen dituen euskara-ikastaroen kontratazioari aplikatu dakizkioken terminoak eta baldintzak onartzen dituzula eta horiek betetzera behartuta zaudela. Ulibarri Euskaltegia kooperatiba-sozietatea da, eta Bilbon du egoitza, Gardoki kaleko 3ko 1. zenbakian. Posta-kodea: 48008. Telefonoa: 944162472 eta IFK F48199673.

**Matrikulazioa:** Gure ikastaroetan matrikulatzeko, matrikula-orria bete eta dagokion ordainketa formalizatu behar duzu, adierazitako epe eta moduetan. Mailaketa proba egitea gomendatzen da, aurreko urtean euskaltegi batean matrikulatuta egon ez bazara edo titulu ofizialik ez baduzu. Egin beharreko mailaren arabera, talde bat esleituko zaizu, baina maila hori aldatu ahal izango da ikasturtea hasi ondoren egingo den diagnostiko-probaren emaitzaren arabera, HABEK ezarritako betekizunen ildotik.

**Prezioak eta ordaintzeko moduak:** Prezioak, epeak eta ordaintzeko moduak gure web-orrian daude. Online matrikulen kasuan, ordainketa gure web-orriko ordainketa-pasabidearen bidez egiten da. Aurrez aurreko matrikulen kasuan, ordainketa kreditu-txartelaren edo zordunketa-txartelaren bidez egiten da, edo banku-transferentzia bidez (Kutxabank ES86 2095 0000 74 5060001101).

% 5eko deskontua: matrikula egitean langabezia egotea egiaztatuz gero.

% 10eko deskontua: aurreko ikasturteko ikasleei fidelizazioagatik, irailaren 15a baino lehen matrikulatuz gero (galdetu baldintzak).

**Euskaltegiaren 50. urteurrenarekin lotutako deskontua 24-25 ikasturterako:**

% 20ko deskontua: aurreko ikasturteko ikasleei fidelizazioagatik aurrematrikula ekainaren 30a baino lehen egiten bada (uztailerako eta abuztuko ikastaroetan, ikastaroaren bukaerarako), eta irailaren 15erako matrikula ordaintzen bada.

% 25eko deskontua: aurreko ikasturteko ikasleei fidelizazioagatik ekainaren 30a baino lehen lagun batekin aurrematrikulatuta (uztailerako eta abuztuko ikastaroetan, ikastaroaren bukaerarako), eta irailaren 15erako biok matrikula ordainduta (laguna 23-24an Ulibarrin ez ibilitakoa izan beharko da).

*\*Deskontuak 2. epean aplikatuko dira. \*\*Etxebarrin erroldatutakoek Etxebarriko Euskaltegian galdetu beharko dute ikastaroen prezioa.*

**Plazak esleitzea:** Kontsultatu erabilgarritasuna eta kontuan izan plazak mugatuak direla. Euskaltegiak erantzun dezakeen eskaera baino handiagoa izanez gero, plazak matrikulazio egunaren arabera esleituko dira. Ikastaroaren lehen egunean adieraziko dizugu zein gelatan emango den dagokizun taldea. Ulibarri Euskaltegiak eskubidea du irakaslea aldatzeko, bai eta taldeko ikasle bat maila eta ordutegi bereko beste talde batera aldatzeko ere.

Gehieneko ikasle kopurua ikastaroaren eta esleitutako gelaren arabera izango da, HABEK ezarritako irizpideak errespetatuz.

**Plazak ez egotea:** Eskatutako maila eta ordutegirako ezin badizugu plazarik esleitu, itxaron-zerrendan eman ahal dizugu izena, hala eskatuz gero, eta ordeko ordutegien berri emango zaizu. Onartzen ez badituzu, ordaindutako kopuru osoa itzuliko zaizu.

**Taldea bertan behera uztea:** Ulibarri Euskaltegiak talde bat kentzeko eskubidea izango du, ordutegi eta maila horretarako 9 ikasleko gutxieneko eskaerarik ez badago. Kasu horretan, beste ordutegi alternatibo batzuk erabilgarri daudela jakinaraziko dizugu, eta onartzen ez badituzu, ordaindutako zenbateko osoa itzuliko zaizu.

**Bajak:** Ulibarri Euskaltegiak idazkaritzan baja jakinarazi zenetik jaso ez dituen eskola-orduekiko proportzionala den kopurua gordeko dio ikasleari hurrengo ikasturtera arte, beste ikastaro batean erabiltzeko. Ikastaroaren erditik aurrera eragindako bajen kopururik ez da gordeko.

**Ikasleak atzera egitea:** Ikasleak kontratu honetan atzera egiteko eskubidea du, inolako justifikaziorik behar izan gabe eta inolako zigorrik ezarri gabe, matrikula egiten denetik 14 egun natural bete arte. Atzera egiteko eskubidea baliatzeko, erabakia jakinarazi beharko duzu [bulegoa@ulibbarri.eus](mailto:bulegoa@ulibbarri.eus) helbidera idatziz, dagokion epea amaitu baino lehen. Proposatzen dugun inprimaki-eredua erabili ahal izango duzu. Ordainketa-frogagiriaren kopia eta matrikularen berrespena eransteke eskatzen dizugu. Itzulketak gehienez 10 eguneko epean izapidetzen dira, banku-transferentzia bidez.

Ikaslea eskoletara sartzen bada atzera egiteko epea igaro baino lehen, berariaz zerbitzuak hasteko eskatzen ari dela onartzen du, eta kontratua bertan behera uztea erabakitzen badu, kontratua ezeztatu nahi duela jakinarazi duen egunera arte Ulibarri Euskaltegiak emandako eskolen proportziozko zenbatekoa ordaindu beharko du. Horrez gain, euskaltegiak, matrikula ezeztatze aukera emango du, inolako zigorrik ezarri gabe, ikastaroa hasi baino 5 egun lehenago. Deskribatutako kasuetatik kanpo, ikasleak ezin izango du kontratua ezeztatu.

**Atzera egiteko inprimakia:**

Honen bidez jakinarazten dizut uko egiten diodala euskara ikastaroei buruzko zerbitzuak emateko nire kontratuari.

Izena eta abizenak: NAN: Kontratazio-data: Data eta sinadura:

Kontu zenbakia (itzulketa egiteko):

**Maila edo ordutegi aldaketak:** Aldaketa egingo da eskatutako mailan edo eskatutako ordutegian, aldezturik onartuta. Ordutegiak apur bat alda daitezke, sarrerak eta irteerak indarrean dagoen araudiaren eta osasun-arrazoiengatik definitutako protokoloen arabera egin daitezke.

**Ikasleen betebeharrak:** Ikasleek portaera egokia izan behar dute, irakasleak eta ikaskideak errespetatuz. Klasera joan eta bertan parte hartu behar dute, klasearen erritmo egokirako oztopo izan ez daitezen. Klaseetan eskura

dezaketan informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu behar dute, bai eta euskaltegiak emandako materialen edo sarbide-kodeen konfidentzialtasuna ere, eta materialak ez kopiatzeko eta ez zabaltzeko konpromisoa hartu behar dute. Debekatuta dago ikasleek eskolak grabatzea eta argazkiak ateratzea. Euskaltegiak beretzat gordetzen du klaseetarako sarbidea ukatzeko eskubidea, baldin eta ikasleak baldintza hauetan aurreikusitakoa betetzen ez badu.

**Ikasleen asistentziak:** Asistentziaren jarraipena HABEren aplikazioaren bitartez egingo da, [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus)-en. Eguneroko asistentzia jasoko da, eta hilaren bukaerarako eguneratua egongo da.

**Informazio gehigarria:** Ikastaroei, prezioei eta modalitatei buruzko informazioa eta matrikula-eredua jendearen eskura daude idazkaritzan eta gure web-orrian. Posta elektronikoz ere eska daitezke, [bulegoa@ulbarri.eus](mailto:bulegoa@ulbarri.eus) helbidera idatzita. Ikastaroaren egutegia gure web-orrian dago eskuragarri, ikaslearen arloan. Euskaltegiarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, ikastaro presentzial bat ezin bada osorik edo zati batean formatu horretan eman, gainerako eskolen ordez, baliokideak edo bidezkoak diren online eskolak eman ahal izango dira. Erreklamazio-orriak eskatzen dituen erabiltzailearen eskura daude.

**Datuen babesa:** Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua – Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa – betez, interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Ulbarri Euskaltegia SK-k tratatuko dituela (helbidea: Gardoki, 3 – 48008 - Bilbo). Datuen tratamenduaren helburua da ikasleak eta haien ikaskuntza-prozesua kudeatzea eta kontratatutako prestakuntza-zerbitzuak ematea, azaroaren 25eko 29/1983 Legearekin bat, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako eta Euskaltegiak Arautzeko Erakundea sortzekoa, eta interesdunak emandako baimena betez. Datuak etengabe gordeko dira aipatutako helbururako beharrezkoak edo egokiak diren bitartean edo interesdunak kontrakoa adierazten ez duen bitartean.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortzekoak eta Euskaltegiak arautzekoak, xedatutakoaren arabera, datuak HABEri jakinaraziko zaizkio, euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleak kudeatzeko, HABEren hizkuntza-gaitasunaren mailen egiaztapena kudeatzeko, eta HABEK zein Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta foru-aldundiek ikasleei zuzendutako dirulaguntzak kudeatzeko, administrazio publiko horiek guztiek eman beharreko dirulaguntzak kontrolatzeko beharrezkoak diren datuak jaso eta eman ahal izan ditzaten, gainfinantzaketarik gerta ez dadin.

Baimena ematen diot HABEri, aurkakorik berariaz adierazi ezean, nire datuak erabil ditzan HABEren dirulaguntza lerro berrien eta euskalduntzearen arloko programa eta baliabideei buruzko informazioa jasotzeko eta HABEK enkargatutako ikerketak eta gogobetetze-inkestak egiteko. Aurka egonez gero X jarri ondorengo laukian.

HABEren zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna. Tratamendua beharrezkoa da legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria <https://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/> helbidean dute eskuragarri onuradunek.

**Enpresa edo administrazio batek** ikasleak egin beharreko ikastaroa lankidetzat hitzarmen bidez kudeatu eta/edo ordaintzen badu, Ulbarri Euskaltegiak ikaslearen datu akademikoak dagokion enpresa edo administrazioari jakinarazteko eskubidea izango du, datuen tratamendurako aipatutako helburu orokorrek.

## **ARGIBIDEAK**

### **IKASTAROA**

- \* Nork bere datu akademikoak [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus) web-orrian ikus ditzake. Horretarako, HASI SAIOAn sartu eta idatzi erabiltzailea (nortasun-agiria letra eta guzti) eta pasahitza (aldatu ez baduzu, nortasun-agiriaren zenbakia letrarik gabe). Halaber, bide bera erabili beharko da azterketako matrikula egiteko, agiriak eskatzeko...
- \* Irakasleak bertaratutako orduak jasoko ditu. Justifikatu beharrezkoa dagokion tokian jakinarazi beharko du ikasleak. **Salbuespenak:** 1)-IRALEko ikasle liberatuen kasuan, justifikanteak hartu egingo dira eta hilabetearen bukaeran bulegoan entregatuko dira. Ez bertaratua jarriko zaie. 2)-C1eko 16-18 urte bitarteko ikasleentzako dirulaguntzari dagokionez, eta A1 maila ikasten duten ikasleentzako dirulaguntzari dagokionez, ikaslea gaixotasun batengatik eskolaratu ez bada eta gaixotasun hori agiri bidez ziurtatu bada, ez da falta aintzat izango. Agiriak irakasleak jasoko ditu eta hilabetearen bukaeran bulegoan entregatuko dira.
- \* Langabetuentzako taldea Ulbarri Euskaltegiak doan eskaintzen duen ikastaroa da. Talde horretan erritmoari etsi ezin dion ikasleak euskaltegiaren ohiko talde batera pasatzean zehaztutako baldintzak bete beharko ditu.

### **ORDAINKETA**

- \* **Astean 10, 7,5, 6 edo 5 orduko ikastaroak eta C2 online:** bigarren epea abenduan ordaindu beharko da; urtarrilean hasita, berriz, bigarren zatia otsailaren azken astean.
- \* **Astean 20 orduko ikastaroak:** hiru hilabetea bi epetan ordainduz gero, bigarren zatia hasi eta lau astera ordaindu beharko da; ikasturte osoa ordainduz gero, bigarren zatia abenduan ordaindu beharko da.
- \* **Udako ikastaroak:** epe bakarrean ordaindu beharko dira.
- \* **Autoikaskuntza:** 9 hilabeteko ikastaroa bi epetan ordaindu daiteke, bigarrena abenduan. 3 hilabeteko eta udako ikastaroak epe bakarrean ordaindu beharko dira.
- \* **Enpresak:** enpresak zuzenean ordainduko dio Ulbarri Euskaltegiari.

- \* **Ikastetxeak:** taldea ikastetxeak kontratatzen badu, ikastetxeari ordaindu beharko dio ikasleak. Bestela, zuzenean Ulbarri Euskaltegiari.
- \* **Enpresak/ Ikastetxeak:** euskaltegiak ez du matrikula itzulketarik egingo.

#### TITULUEN BALIOKIDETZA

	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HABE	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HAEE-IVAP			1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
OSAKIDETZA			1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
ERTZAINZTA				1. HE Ertzaintza	2. HE Ertzaintza	
HEZKUNTZA				Irakasleen 1. HE	Irakasleen 2. HE	
					EGA	
HIZKUNTZA ESKOLA			Tarteko maila	Maila aurreratua	C1 Gaitasun maila	

#### TITULU OFIZIALAK (BALDINTZAK)

- \* **HABE.** Bi modu daude euskara-mailak egiaztatzeko:
  - **EBALUAZIOA EUSKALTEGIETAN: A1 eta A2 mailak**  
HABEk balio egiaztatzailea aitortzen die euskaltegietakoko ikasprozesuan zehar ikasleek egindako ebaluazio-jarduerei, betiere ezarritako baldintzak betetzen badira. HABEren irizpideak irakurtzeko: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus)
  - **AZTERKETA-DEIALDIAK: B1, B2, C1 eta C2 mailak**  
Azterketarien gaitasuna (partez edo osorik) kanpo-ebaluazioaren bidez egiaztatzen da, HABEK antolatutako azterketa-deialdietan. HABEk hiru deialdi mota nagusi egiten ditu:
    - 1.-Euskaltegietakoko ikasleen deialdia.** Matrikula-eskubideak euskaltegian lortutako mailaren arabera eskuratuko dira. Ikasleak, ebaluazio diagnostikoaz gainera, gutxienez ebaluazio bat baldin badu, ebaluazio-dataren ondorengo bi azterketaldietan parte hartzeko aukera izango du: atalase-maila batera iritsi bada, maila horretan; atalase-maila batera iritsi ez bada, berriz, aitortu zaion mailaren azpiko atalase-mailarik altuenean. HABEren irizpide guztiak irakurtzeko: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).
    - Ulbarri Euskaltegian, aurrez aurrekoetan, martxoko ebaluazio-datarako taldeak 90 ordu emanda eta ikasleak 50 ordu jasoak izan beharko ditu; astean 5 ordu baino gutxiagoko moduluetan ebaluazio bakarria egingo da, ikastaroaren amaieran; autoikaskuntzan, 40 ordu online, 4 tutoretza eta 8 talde-saio emanda, eta 30 ordu, 2 tutoretza eta 5 talde-saio jasoak; ikastaro amaieran eta udakoetan, 50 ordu jasoak.
    - 2.-Deialdi irekia.** HABEren irizpideak irakurtzeko: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).
    - 3.-HOBE deialdia (ordenagailu bidez).** HABEren irizpideak irakurtzeko: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).
- \* **BESTE AUKERA BATZUK EUSKARA-MAILAK EGIAZTATZEKO:**
  - Gure ikasleak **Hizkuntza Eskolako** deialdi irekira ere aurkez daitezke. Matrikula otsailean izaten da.
  - **IVAPek** hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak ateratzen ditu EAEko administrazioetako langileentzat.
  - **IRALEk** hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak ateratzen ditu EAEko ikastetxe publiko edo pribatu baimenduetako langileentzat edo ordezkapen-zerrendetan daudenentzat.

#### PROBAK ETA EBALUAZIOAK

Ikastaro/modulu bakoitzeko, ikasleak duen abiapuntuaren arabera, euskaltegian egin behar dituen **probak** eta HABEren Q87 programan grabatu beharreko **ebaluazioak** zehaztu dira, baita noiz egin behar dituen ere.

- \* **PROBAK:** hasierako diagnosi-proba, tarteko proba eta maila bukaerako proba egingo dira (maila-arduradunek zehaztuak). *Salbuespenak:*
  - Hasierako diagnosi-proba. Azken 2 hilabeteetan gurean edo beste euskaltegi batean aritu bada edo titulu ofiziala edota baliokidea badu, irakasle berriak berretsiko du ala ikasleari diagnosia egingo dio.*
  - Tarteko proba. Kasu hauetan ez da behar: ikasleak A0A0, A1A0 eta A2A1 abiapuntua duenean; beranduko altetan aukerarik ez dagoenean; B1, B2, C1 eta C2 mailetan ebaluazioa martxora aurreratzen denean; ordu gutxiko moduluetan (udakoak ...).*
  - Probarik egin nahi ez duen ikasleari dokumentua emango zaio sinatzeko eta bulegora bidali beharko da. Ikasleari maila ez gainditua jarri behar zaio Q87an. \*Dokumentua sinatu nahi ez badu, maila ez gainditua jarri behar zaio Q87an.*
  - **Maila bukaerako proba gainditu behar da** maila aitortzeko. Hurrengoaren diagnosia izango da, bi hilabete pasatu ez badira. Ebaluazio jarraituko maila bukaerako probaren idazmena eta mintzamena taldeko irakasleak eta beste irakasle batek ebaluatuko dute.
- \* **EBALUAZIOAK (Q87):** maila egiteko ordu kopurua betetzen denean eta ikastaroaren bukaeran egingo dira. Q87an jasoko da ikasleak lortutako maila.
  - Ebaluazio-datak maila eta modulu bakoitzak duen ordu kopuruaren arabera zehaztu badira ere, zenbait egokitzapen egin da. \*Euskaltegiak aurreikusitako ebaluazio-datak alda ditzake kudeaketan gerta litezkeen

gorabeheren arabera.

- **Ebaluazio-probak** zein astetan egingo diren ikasturte hasieran **jakinaraziko die irakasleak ikasleei**.

	ABENDUAN	URTARRILEAN	OTSAILEAN	MARTXOAN	EKAINEAN
ASTEAN 5 ORDU / ASTEAN 4 ORDU+TUTORETZAK	---	---	---	A1, A2, B1, B2, C1, C2	BUKAERAKOA
ASTEAN 5 ORDU+TUTORETZAK/ ASTEAN 6 ORDU	---	---	A1, A2	B1, B2, C1	BUKAERAKOA
ASTEAN 7,5 ORDU	---	A1, A2	---	B1, B2, C1	BUKAERAKOA
ASTEAN 10 ORDU	A1, A2	---	---	A2, B1, B2, C1	BUKAERAKOA

- **Abenduan** eta **urtarrilean** hilearen azken klase astean; **otsailean** 10eko astean; **martxoan** HABEK Ebazpenean zehaztutakoaren arabera; eta **ekainean** hilearen azken klase astean.

	URRIAN	AZAROAN	ABENDUAN	OTSAILEAN	MARTXOAN	MAIATZEAN	EKAINEAN
ASTEAN 20 ORDU	---	A1, A2	A2, B1, B2, C1	A2	B1, B2, C1	B1 (urrian A1A0 zutenentzat)	BUKAERAKOA
ASTEAN 25 ORDU (Aotik)	A1	---	A2	---	B1	---	B2

- **Urrian**, **azaroan** eta **abenduan** hilearen azken klase astean; **otsailean** 10eko astean; **martxoan** HABEK Ebazpenean zehaztutakoaren arabera; eta **maiatzean** eta **ekainean** hilearen azken klase astean.
- **B1, B2, C1 eta C2 mailetan ebaluazioa martxoan** egingo da HABEren lehenengo azterketaldirako (*\*ikus baldintzak TITULU OFIZIALAK (BALDINTZAK) izeneko atalean*). **B1, B2, C1 eta C2 mailetako entzumena eta irakurmena**: HABEK onartuko du euskaltegiak trebetasun horietan ezarritako emaitza. Horretarako, maila egiaztatzeko egindako bukaerako probaren kalifikazioak erabiliko dira. BECen ez dira trebetasun horiek egingo.
- **A1 eta A2 mailak** ebaluazio jarraituaren bitartez egiaztatzeko gutxienez 50 irakastordu (udakoetan 30 irakastordu) jasota izan beharko ditu eta gutxieneko asistentzia izan.

## HABEREN ZIURTAGIRIAK

- \* Ebaluazio jarraituaren bidez edo gaitasun-probak gaindituz mailaren bat egiaztatu duenak dagokion ziurtagiria eskuratu ahal izango du [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus) atarian norberaren sarbidea eta **Agiriak** aukera baliatuz.

## ERREKLAMAZIOAK / EMAITZA BERRIKUSTEKO ESKAERAK

- \* Erreklamazioak/emaitzak berrikusteko eskaerak egiteko prozedura [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus) web-orrian zehaztuko da, dagokion Euskara-mailak egiaztatzea atalean, Erreklamazioak, kalifikazioak berrikusteko eskariak eta gora jotzeko errekurtsioak atalean.

## DIRULAGUNTZAK

- \* **Ulbarri Euskaltegian** langabezian dauden pertsonei % 5eko deskontua egingo diegu ikastaroetan, matrikula egitean langabezian egotea egiaztatuz gero. Halaber, aurreko ikasturteko ikasleei % 10eko deskontua egingo diegu urritik ekainerako matrikuluan; beti ere, irailaren 15a baino lehen matrikulatuz gero. 24-25 ikasturtean, Euskaltegiaren **50. urteurrena ospatzeko**, deskontu berezia egingo diegu urritik ekainerako matrikuluan 2023-2024 ikasturtean gurekin egon direnei:  
% **20**ko deskontua aurrematrikula ekainaren 30a baino lehen egiten bada (uztaileko eta abuztuko ikastaroetan, ikastaroaren bukaerarako), eta irailaren 15erako matrikula ordaintzen bada.  
% **25**eko deskontua ekainaren 30a baino lehen lagun batekin aurrematrikulatuta (uztaileko eta abuztuko ikastaroetan, ikastaroaren bukaerarako), eta irailaren 15erako biok matrikula ordainduta (laguna 23-24an Ulbarrin ez ibilitakoa izan beharko da). *\*Deskontuak 2. epean aplikatuko dira. \*\*Etxebarrin erroldatutakoek Etxebarriko Euskaltegian galdetu beharko dute ikastaroen prezioa.*  
Horrez gain, egunean bost orduko ikastaro trinkoa eskainiko dugu urritik ekainera langabezian daudenentzat, zerotik hasteko. Ulbarri Euskaltegiak doan eskaintzen duen ikastaroa da.
- \* **HABE**. Euskaltegian maila bat gainditu dutenek edo HABEren egiaztatze-proben bidez titulua lortu dutenek HABEren ikasleentzako dirulaguntza deialdian parte hartzeko eskubidea izango dute, betiere HABEK ezarritako baldintzak beteta. Azken deialdian oinarrituta, bi txanda ezarri dira eskariak egiteko (ekainean eta irailean). Informazio eguneratua: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus)  
Horretaz gain, 16-18 urte bitarteko gazteek (2006, 2007 edo 2008an jaiotakoak) dirulaguntza berria izango dute C1 maila helburu duen edozein ikastaro egiteko; horren arabera prezioak gure eskaintzan, ikastaroen

atalean. Dirulaguntzaren inguruko informazioa eta baldintzak: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).

Halaber, 2024-2025 ikasturtean, A1 maila ikasi nahi duten ikasleei zuzendutako dirulaguntza berria egongo da. Horren araberako prezioak gure eskaintzan, ikastaroen atalean. Dirulaguntzaren inguruko informazioa eta baldintzak: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus)

- \* **Zenbait udalek** dirulaguntzak ematen dituzte, esaterako, Basauri, Leioa, Getxo, Sopela, Mungia, Galdakao, Zalla, Balmaseda eta Santurtzi. Udalen laguntzak eskuratzeko baldintzak zein diren dagokion udalean galdetu beharko du ikasleak, eta aurkeztu beharreko agiria bulegoan prestatuko diogu.
- \* **Bilboko Udala**. Bilbon erroldatuta dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegi homologaturen batean matrikula egin duen orok dauka aukera dirulaguntza eskatzeko. Orain arteko deialdietan oinarrituta, Bilboko Udalaren dirulaguntzen baldintzak [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) atarian argitaratzen dira apirilean.
- \* **HABEK** eta **Lanbidek** akordioa sinatu dute, eta horren bitartez diruz lagunduko dituzte hainbat euskara-ikastaro. Ikastaroa ordaintzetik salbuesten duen fitxa lortzeko, [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) web-orrira sartu, prestakuntza atalera. Pantailan bertan agertuko da HABEko ikastaroetarako esteka. Ikasleak euskaltegian entregatu beharko du helarazi dioten inskripzio-orria. Orri hori aurkeztuta, ikastaroa ordaintzetik salbuestita geratuko da ikaslea, eta Lanbidek prestakuntza-ordutzat kontabilizatuko ditu ikastaroko orduak.

#### INFORMAZIO OFIZIALAK JASOTZEKO BIDEAK

- \* Oro har, informazio ofiziala HABEK argitaratuko du bere web-orrin: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).
- \* Ikaslea dagokion informazioa lortzearen erantzule izango da. Euskaltegiak bere esku dagoen guztia egingo du ikasleari informazioa lortzen laguntzeko; hala ere, **informazioa lortzea ikaslearen ardura da**.
- \* Euskaltegiak informazioa ohar-tauletan eta web-orrin izango du. Halaber, posta elektronikoz bidaliko du [bulegoa@ulibbarri.eus](mailto:bulegoa@ulibbarri.eus) helbidetik matrikula-fitxan adierazitako helbidera.

#### KEZKAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

- \* Iradokizun-orriak ikasgela guztietan zein sarrerako iradokizun-kutxaren ondoan daude, baita web-orrin ere [www.ulibbarri.eus](http://www.ulibbarri.eus) **Ikaslea** atalean. Kexak edo iradokizunak idatziz egin beharko dira.

## **TÉRMINOS Y CONDICIONES**

Al matricularse, confirma que acepta los términos y condiciones aplicables a la contratación de los cursos de euskera que ofrece Ulibarri Euskaltea y se obliga a su cumplimiento. Ulibarri Euskaltea es una sociedad cooperativa con domicilio en Bilbao, en la calle Gardoki nº 3, 1º, con código postal 48008, teléfono 944162472 y CIF F48199673.

**Matriculación:** Para matricularse en nuestros cursos debe rellenar la hoja de matrícula y formalizar el pago correspondiente en los plazos y formas indicados. Se recomienda realizar la prueba de nivel en nuestra página web si no ha estado matriculado/a en un euskaltea el año anterior o no tiene título oficial. En función del nivel a realizar se le asignará un grupo, aunque dicho nivel podrá modificarse según el resultado de la prueba de diagnóstico que se realizará una vez iniciado el curso, en línea con los requisitos establecidos por HABE.

**Precios y formas de pago:** Los precios, plazos y métodos de pago figuran en nuestra página web. En el caso de las matrículas online el pago se realiza mediante la pasarela de pago de nuestra página web. En el caso de las matrículas presenciales, el pago se realiza mediante tarjeta de crédito o débito, o mediante transferencia bancaria (Kutxabank ES86 2095 0000 74 5060001101)

5 % de descuento acreditando estar en desempleo al realizar la matrícula.

10 % de descuento por fidelización a alumnos/as del curso anterior matriculándose antes del 15 de septiembre (preguntar condiciones).

Descuento en el curso 24-25 por el 50 aniversario del Euskaltea:

20 % de descuento por fidelización a alumnos/as del curso anterior si realizan la prematrícula antes del 30 de junio (en los cursos de julio y agosto antes de finalizar el curso) y formalizan la matrícula y el abono de la misma antes del 15 de septiembre.

25 % de descuento por fidelización a alumnos/as del curso anterior si realizan la prematrícula junto con otra persona antes del 30 de junio (en los cursos de julio y agosto antes de finalizar el curso) y ambos formalizan la matrícula y el abono de la misma antes del 15 de septiembre (la otra persona deberá ser alguien que no haya estado en Ulibarri durante el curso 23-24). *\*Los descuentos se aplicarán en el 2º plazo. \*\*Las personas empadronadas en Etxebarri serán informadas en el Euskaltea de Etxebarri sobre los precios.*

**Asignación de plazas:** Consulte disponibilidad y tenga en cuenta que las plazas son limitadas. En caso de existir una demanda superior a la que el euskaltea pueda atender, la asignación de plazas se realizará en función de la fecha de matriculación. El primer día del curso se le indicará el aula en el que se impartirá el grupo correspondiente. Ulibarri Euskaltea se reserva el derecho de cambiar el/la profesor/a, así como de cambiar a un/a alumno/a de grupo a otro del mismo nivel y horario.

El número máximo de alumnos/as dependerá del curso y del aula asignada, respetando los criterios establecidos por HABE.

**Inexistencia de plazas:** En el caso de que no se le pueda asignar plaza para el nivel y horario requerido, se le puede apuntar en lista de espera si así lo solicita y se le informará de la disponibilidad de horarios alternativos y en caso de no ser aceptados, se le reembolsará íntegramente la cantidad abonada.

**Cancelación del grupo:** Ulibarri Euskaltea se reserva el derecho a suprimir un grupo si no existe una demanda mínima de 9 alumnos/as para ese horario y nivel. En ese caso, se le informará de la disponibilidad de otros horarios alternativos, y en caso de no ser aceptados, se le reembolsará íntegramente la cantidad abonada.

**Bajas:** Ulibarri Euskaltea le guardará al/a la alumno/a hasta el siguiente curso la cantidad proporcional al número de horas de clase no recibidas desde la notificación de la baja en secretaría para utilizar en otro curso. No se guardará cantidad alguna de las bajas causadas a partir de la mitad del curso.

**Desistimiento por parte del/de la alumno/a:** El/la alumno/a tiene derecho a desistir del presente contrato sin necesidad de justificación y sin penalización de ninguna clase hasta la fecha en la que se cumplan 14 días naturales desde el día en que se realiza la matrícula. Para ejercer el derecho de desistimiento, deberá notificar su decisión escribiendo a [bulegoa@ulibbarri.eus](mailto:bulegoa@ulibbarri.eus) antes de que venza el plazo correspondiente. Podrá utilizar el modelo de formulario que proponemos. Rogamos adjunte copia del justificante de pago y la confirmación de la matrícula. Las devoluciones se tramitan en un plazo máximo de 10 días mediante transferencia bancaria. En el caso de que el/la alumno/a acceda a las clases antes de que transcurra el periodo de desistimiento, reconoce que está solicitando expresamente el inicio de los servicios, y si decide cancelar el contrato, deberá abonar la cantidad proporcional a las clases que Ulibarri Euskaltea haya impartido hasta la fecha en la que haya informado de su deseo de cancelar el contrato. Además, el euskaltea ofrece la opción de cancelar la matrícula sin penalización de ninguna clase 5 días antes del comienzo del curso. Fuera de los casos descritos el/la alumno/a no podrá cancelar el contrato.

### **Formulario de desistimiento:**

Por la presente le comunico que desisto de mi contrato de prestación de servicios relativo a los cursos de euskera.

Nombre y apellidos: \_\_\_\_\_ DNI: \_\_\_\_\_ Fecha de contratación: \_\_\_\_\_ Fecha y firma: \_\_\_\_\_

Número de cuenta (para realizar la devolución): \_\_\_\_\_

**Cambios de nivel o de horario:** Se procederá al cambio en el nivel requerido o en el horario solicitado, previa aceptación. Los horarios pueden variar ligeramente para que las entradas y salidas se realicen de acuerdo a la normativa vigente y a protocolos definidos por causas sanitarias.

**Deberes y obligaciones de los/as alumnos/as:** Los/as alumnos/as deben mantener un comportamiento adecuado, respetando a profesores/as y compañeros/as. Deben asistir y participar en clase de forma que no sean un obstáculo para el adecuado ritmo de la clase. Deben respetar la confidencialidad de la información a la que tengan acceso durante las clases así como de los materiales o códigos de acceso suministrados por el euskaltegi, comprometiéndose a no copiar ni divulgar los materiales de ningún modo. Queda prohibida la grabación de las clases por parte del alumnado así como la toma de fotografías. El euskaltegi se reserva el derecho a denegar el acceso a las clases en el caso de que el/a alumno/a incumpla lo previsto en los presentes términos y condiciones.

**Asistencia de los/as alumnos/as:** El seguimiento de la asistencia del alumnado se realizará a través de la aplicación de HABE en [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus). Se anotará la asistencia diaria, que estará actualizada a finales de mes.

**Información adicional:** La información sobre cursos, precios y modalidades, así como el modelo de matrícula está a disposición del público en secretaría y en nuestra página web. También se pueden solicitar mediante correo electrónico dirigiéndose a [bulegoa@ulibarri.eus](mailto:bulegoa@ulibarri.eus). El calendario del curso está disponible en nuestra página web, en el área del/ de la alumno/a. En el caso de que un curso presencial no pudiera impartirse total o parcialmente en dicho formato por causas ajenas al euskaltegi, las clases restantes podrán sustituirse por clases online que se consideren equivalentes o equitativas. Existen hojas de reclamaciones a disposición de la persona usuaria que las solicite.

**Protección de datos:** En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos personales y garantía de los derechos digitales, y el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo - de 27 de abril de 2016 - relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Ulibarri Euskaltegia S.C. con domicilio en Gardoki, 3 – 48008 – Bilbao. La finalidad del tratamiento de los datos es la gestión del alumnado y su proceso de aprendizaje y prestar los servicios de formación contratados de acuerdo al cumplimiento de la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis y el consentimiento prestado por la persona interesada. Los datos se conservarán permanentemente mientras sean necesarios o pertinentes para la finalidad mencionada o que la persona interesada no indique lo contrario.

Los datos serán comunicados a HABE conforme a lo dispuesto por la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis, para la gestión del alumnado de los euskaltegis y centros homologados para el autoaprendizaje del Euskera y su proceso de aprendizaje, para gestionar la acreditación de niveles de competencia lingüística de HABE, así como para la gestión de las subvenciones dirigidas al alumnado tanto por HABE como por los ayuntamientos y diputaciones forales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a fin de que todas estas administraciones públicas puedan recibir y entregar entre sí los datos necesarios para el control de las subvenciones a conceder, y evitar la sobre financiación.

Autorizo a HABE, salvo que se indique lo contrario expresamente, para que utilice mis datos para recibir información sobre las nuevas líneas de subvención y los diferentes programas y recursos en materia de euskaldunización de HABE y para la realización de investigaciones y encuestas de satisfacción encargadas por HABE. En caso de no autorizar, marcar con una X el cuadro.

El Director o Directora de HABE será el órgano administrativo responsable del tratamiento. Es necesario el tratamiento para el cumplimiento de obligaciones legales.

Las personas interesadas tendrán derecho de acceso, rectificación y supresión, así como de limitación u oposición a su tratamiento en los términos señalados en la información complementaria.

Podrán obtener información complementaria sobre el tratamiento de sus datos en la siguiente dirección <https://www.habe.euskadi.eus/proteccion-datos-personales-habe/s23-edukiak/es/>

En el caso de que **una empresa o administración** gestione y/o abone el curso a realizar por el/la alumno/a mediante convenio de colaboración, Ulibarri Euskaltegia se reserva el derecho a comunicar los datos académicos del/de la alumno/a a la empresa o administración correspondiente con la finalidad general mencionada de tratamiento de datos.

## **INSTRUCCIONES** **CURSO**

- \* Los datos académicos se pueden consultar en la página web [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus). Para ello, entra en INICIAR SESIÓN y escribe el usuario (el DNI completo, con la letra) y la contraseña (si no lo has cambiado, el número de DNI sin letra). Se deberá utilizar el mismo procedimiento para realizar la matrícula del examen, solicitar documentación ...
- \* El euskaltegi registrará las horas de asistencia. Lo que haya que justificar lo comunicará la persona interesada en el lugar que corresponda. **Excepciones:** 1)-Los/las alumnos/as liberados/as de IRALE entregarán los justificantes al/a la docente y se entregarán en la oficina a final de mes. Se pondrá no asistido. 2)-En el caso de la subvención a alumnos/as de 16 a 18 años de nivel C1, y en el caso de la subvención a alumnos/as de nivel A1, si el alumno/a no ha asistido por alguna enfermedad y ésta está justificada, no se tendrá en cuenta la falta. Los justificantes se entregarán al/a la docente y se entregarán en la oficina a final de mes.

- \* El curso para desempleados es un curso que ofrece gratuitamente Ulibarri Euskaltegia. La persona que no pueda seguir el ritmo en ese grupo deberá cumplir las condiciones establecidas al pasar a un grupo ordinario del euskaltegi.

#### ABONO

- \* Cursos de 10, 7.5, 6 ó 5 horas a la semana y C2 online: la segunda parte ha de abonarse en diciembre; comenzado en enero, la segunda parte la última semana de febrero.
- \* Cursos de 20 horas a la semana: realizando el pago del trimestre en dos plazos, la segunda parte se abonará a las cuatro semanas; abonando el curso completo, la segunda parte se abonará en diciembre.
- \* Cursos de verano: tendrán que abonarse en un plazo.
- \* Autoaprendizaje: el curso de 9 meses se podrá pagar en dos plazos, el segundo plazo en diciembre. El curso de 3 meses y el de verano tendrán que abonarse en un plazo.
- \* Empresas: la empresa abonará el importe directamente a Ulibarri Euskaltegia.
- \* Centros educativos: si el centro educativo contrata el grupo, el/la alumno/a deberá abonar el importe al centro educativo. Sino, deberá abonarlo directamente a Ulibarri Euskaltegia.
- \* Empresas/Centros educativos: el euskaltegi no realizará la devolución de matrícula alguna.

#### CONVALIDACIÓN DE TÍTULOS

	A1		A2		B1		B2		C1		C2	
HABE	A1	A2	B1	B2	C1	C2						
HAEE-IVAP			Perfil 1	Perfil 2	Perfil 3	Perfil 4						
OSAKIDETZA			Perfil 1	Perfil 2	Perfil 3	Perfil 4						
ERTZAINZA				Perfil 1 Ertzaintza	Perfil 2 Ertzaintza							
EDUCACIÓN				Perfil 1 Docentes	Perfil 2 Docentes	EGA						
ESCUELA DE IDIOMAS			Nivel Intermedio	Nivel Avanzado	Nivel de Aptitud C1							

#### TÍTULOS OFICIALES (CONDICIONES)

- \* **HABE.** Hay dos formas para acreditar los niveles de euskera:

- **Evaluación en euskaltegis: niveles A1 y A2.**

HABE otorga valor acreditativo a las actividades de evaluación que el alumnado de los euskaltegis realiza en su proceso de aprendizaje, siempre que se cumplan los requisitos establecidos. Para leer los criterios de HABE: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).

- **CONVOCATORIA DE EXAMEN: Niveles B1, B2, C1 y C2.**

La competencia lingüística se acredita (parcial o totalmente) mediante evaluación externa, en las convocatorias de exámenes de HABE. HABE realiza tres tipos de convocatoria de examen:

**1.-Convocatoria alumnado de euskaltegis.** Los derechos de matrícula se adquieren en función del nivel alcanzado en el euskaltegi. Si los alumnos y alumnas tienen al menos una evaluación, además de la evaluación diagnóstica, podrán presentarse en los dos períodos de exámenes posteriores a la fecha de evaluación: si ha alcanzado un nivel umbral, a ese nivel; si, en cambio, no ha alcanzado un nivel umbral, al nivel inferior más alto. Para leer todos los criterios y condiciones de HABE: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).

En Ulibarri Euskaltegia, en los cursos presenciales, el grupo deberá haber impartido 90 horas para la fecha de evaluación de marzo y el/la alumno/a haber recibido 50 horas; en los módulos de menos de 5 horas semanales se realizará una única evaluación, a final de curso; en autoaprendizaje se deberá haber dado un mínimo de 40 horas online, 4 tutorías y 8 sesiones grupales y haber recibido 30 horas online, 2 tutorías y 5 sesiones grupales; al final de curso y en los de verano haber recibido 50 horas.

**2.-Convocatoria abierta.** Para leer los criterios de HABE: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).

**3.-Convocatoria HOBE (por ordenador).** Para leer los criterios de HABE: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).

- \* **OTRAS OPCIONES PARA ACREDITAR LOS NIVELES DE EUSKERA**

- Nuestro alumnado también puede presentarse a la convocatoria abierta de la **Escuela de Idiomas**. La matrícula suele ser en febrero.
- El **IVAP** realiza las convocatorias de acreditación de perfiles lingüísticos para el personal de las administraciones vascas.
- **IRALE** realiza las convocatorias de acreditación de perfiles lingüísticos para el personal de los centros públicos o privados autorizados de la CAPV o que se encuentren en listas de sustituciones.

#### PRUEBAS Y EVALUACIONES DEL EUSKALTEGI

Por cada curso/módulo, en función del punto de partida del alumnado, se han especificado las **pruebas** que se deben realizar en el euskaltegi y las **evaluaciones** a grabar en el programa Q87 de HABE, así como las fechas en las que se deben realizar.



- \* **PRUEBAS:** se realizarán la prueba de diagnóstico inicial, la prueba intermedia y la prueba final de nivel (definidas por los/as responsables de nivel). *Excepciones:*
  - a) *Prueba de diagnóstico inicial. Si ha estado en el euskaltegi o en otro euskaltegi los 2 últimos meses o si tiene título oficial y/o equivalente, el/la profesor/a lo confirmará o le realizará la prueba de diagnóstico inicial al/a la alumno/a.*
  - b) *Prueba intermedia. En estos casos no es necesaria: cuando el/la alumno/a tiene A0A0, A1A0 y A2A1 como punto de partida; en el caso de las altas tardías, cuando las fechas de evaluación del grupo no den opción; en los niveles B1, B2, C1 y C2, cuando se adelanta la evaluación a marzo; en los módulos de pocas horas (los de verano...).*
  - c) *Al/a la alumno/a que no quiera realizar las pruebas se le dará el documento para que lo firme y se tendrá que mandar a la oficina. Al/a la alumno/a se le pondrá nivel no superado en el Q87. \*Si no quiere firmar el documento, hay que ponerle nivel no superado en el Q87.*
- Para aprobar el nivel **es necesario aprobar la prueba final de nivel**. Será la prueba de diagnóstico del siguiente nivel, si no han pasado dos meses. En evaluación continua, las pruebas de expresión escrita y oral de la prueba final de nivel serán corregidas por el/la profesor/a del grupo y otro/a profesor/a.
- \* **EVALUACIONES (Q87):** se realizarán al llegar al número de horas necesarias para completar el nivel y al finalizar el curso. Se registrará en el Q87 el nivel conseguido por el/la alumno/a.
  - Aunque las fechas de evaluación se han determinado en función del nivel y del número de horas que tiene cada módulo, se ha realizado algún ajuste. *El euskaltegi puede modificar las fechas de evaluación previstas en función de las incidencias que puedan producirse en la gestión.*
  - **El/la profesor/a comunicará a los/as alumnos/as** a principios de curso cuándo se realizarán **las pruebas de evaluación**.

	EN DICIEMBRE	EN ENERO	EN FEBRERO	EN MARZO	EN JUNIO
5 HORAS SEMANALES / 4 HORAS SEMANALES+TUTORÍAS	---	---	---	A1, A2, B1, B2, C1, C2	LA FINAL
5 HORAS SEMANALES+TUTORÍAS / 6 HORAS SEMANALES	---	---	A1, A2	B1, B2, C1	LA FINAL
7,5 HORAS SEMANALES	---	A1, A2	---	B1, B2, C1	LA FINAL
10 HORAS SEMANALES	A1, A2	---	---	A2, B1, B2, C1	LA FINAL

- **En diciembre y en enero**, la última semana de clase del mes; **en febrero**, la semana del 10; **en marzo**, según lo establecido por HABE en la Resolución; y **en junio**, la última semana de clase del mes.

	EN OCTUBRE	EN NOVIEMBRE	EN DICIEMBRE	EN FEBRERO	EN MARZO	EN MAYO	EN JUNIO
20 HORAS SEMANALES	---	A1, A2	A2, B1, B2, C1	A2	B1, B2, C1	B1 (teniendo A1A0 en octubre)	LA FINAL
25 HORAS SEMANALES (DESDE EL A0)	A1	---	A2	---	B1	---	B2

- **En octubre, en noviembre y en diciembre**, la última semana de clase del mes; **en febrero**, la semana del 10; **en marzo**, según lo establecido por HABE en la Resolución; y **en mayo y en junio**, la última semana de clase del mes.
- **En los niveles B1 B2, C1 y C2 la evaluación se realizará en marzo** de cara al primer periodo de exámenes de HABE (*\*ver condiciones en el apartado TÍTULOS OFICIALES (CONDICIONES)*). **Las pruebas de comprensión oral y escrita de los niveles B1, B2, C1 y C2:** HABE aceptará las calificaciones otorgadas por el euskaltegi en esas destrezas. Para ello se emplearán las calificaciones relativas a la prueba de finalización del nivel realizada para acreditar el nivel. En el BEC no se realizarán esas destrezas.
- Para acreditar los niveles **A1 y A2** mediante evaluación continua deberá haber recibido un mínimo de 50 horas lectivas (30 horas lectivas en los cursos de verano) y contar con una asistencia mínima.

#### CERTIFICADOS DE HABE

- \* Quien haya acreditado un nivel mediante evaluación continua o mediante convocatoria de examen podrá solicitar el certificado a través de la página web [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus) entrando en acceso personal, apartado **Certificados**.

#### RECLAMACIONES/SOLICITUDES DE REVISIÓN DE RESULTADOS

- \* El procedimiento para realizar las reclamaciones/solicitudes de revisión de resultados se especificará en la página web [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus), en el apartado Acreditar niveles de euskera correspondiente, en el apartado Reclamaciones y solicitudes de revisión de calificaciones y recursos de alzada.

## SUBVENCIONES

- \* **Ulizarri Euskaltegia** a las personas que están en desempleo les aplicará un **5 %** de descuento en los cursos, acreditando estar en desempleo al realizar la matrícula. Así mismo, se les aplicará un **10 %** de descuento a los/las alumnos/as del curso anterior en la matrícula de octubre a junio; siempre y cuando hayan realizado la matrícula y hayan abonado el primer plazo del pago para el 15 de septiembre. En el curso 24-25, **con motivo del 50 aniversario** del Euskaltegi, se aplicará un descuento especial en la matrícula de octubre a junio a los/as alumnos/as que hayan estado en el curso 2023-2024:  
**20 %** de descuento si realizan la prematrícula antes del 30 de junio (en los cursos de julio y agosto antes de finalizar el curso) y formalizan la matrícula y el abono de la misma antes del 15 de septiembre.  
**25 %** de descuento si realizan la prematrícula junto con otra persona antes del 30 de junio (en los cursos de julio y agosto antes de finalizar el curso) y ambos formalizan la matrícula y el abono de la misma antes del 15 de septiembre (la otra persona deberá ser alguien que no haya estado en Ulizarri durante el curso 23-24). *\*Los descuentos se aplicarán en el 2º plazo. \*\*Las personas empadronadas en Etxebarri serán informadas en el Euskaltegi de Etxebarri sobre los precios.*  
Además de eso, ofrecemos un curso intensivo de cinco horas diarias de octubre a junio para personas desempleadas, empezando desde cero. Es un curso que ofrece gratuitamente Ulizarri Euskaltegia.
- \* **HABE**. Quienes hayan superado un nivel en el euskaltegi o hayan obtenido el título a través de las pruebas de acreditación de HABE tendrán derecho a participar en la convocatoria de subvenciones para el alumnado de HABE, siempre que se cumplan las condiciones estipuladas por HABE. Según las últimas convocatorias realizadas, se han abierto dos turnos para realizar la solicitud (uno en junio y otro en septiembre). Más información: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).  
Además de eso, los jóvenes de 16 a 18 años (nacidos en 2006, 2007 o 2008) tendrán una nueva subvención para la realización de cualquier curso que tenga como objetivo el nivel C1; los precios según la subvención en nuestra oferta, en el área de cursos. Información y condiciones de la subvención: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).  
Asimismo, para el curso 2024-2025 habrá una nueva subvención dirigida al alumnado matriculado en el nivel A1. Los precios según la subvención en nuestra oferta, en el área de cursos. Información y condiciones de la subvención: [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).
- \* **Varios ayuntamientos** dan subvenciones, por ejemplo, Basauri, Leioa, Getxo, Sopela, Mungia, Galdakao, Zalla, Balmaseda y Santurtzi. Para conocer las condiciones para obtener las subvenciones municipales, el/la alumno/a deberá dirigirse al ayuntamiento correspondiente; en secretaría le prepararemos el certificado a presentar.
- \* **Ayuntamiento de Bilbao**. Podrán solicitar estas ayudas todas las personas empadronadas en Bilbao y que se hayan matriculado en algún euskaltegi homologado de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Según las convocatorias realizadas hasta ahora, las condiciones para las subvenciones del Ayuntamiento de Bilbao se publican en la página web [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) en abril.
- \* **HABE y Lanbide** han firmado un acuerdo mediante el cual, subvencionarán diversos cursos de euskera. Para hacerse con la ficha con la cual quedas exento/a del pago del curso, accede a la web [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) al apartado de formación. En la misma pantalla te aparecerá el enlace para los cursos de HABE. Si te corresponde la ayuda, debes entregar en el Euskaltegi la hoja de inscripción que te proporcionen. Presentándola, además de quedar exento/a de abonar la matrícula, te contabilizarán las horas de tu curso de euskera como horas de formación.

## CANALES DE INFORMACIÓN OFICIAL

- \* En términos generales, HABE publicará toda la información en la página [www.habe.euskadi.eus](http://www.habe.euskadi.eus).
- \* El/la alumno/a se responsabilizará de obtener la información correspondiente. El Euskaltegi hará todo lo que esté en su mano para ayudar al/a la alumno/a a obtener la información; sin embargo, **obtener la información es responsabilidad del/de la alumno/a**.
- \* El Euskaltegi dispondrá la información en los tablones de anuncios y en la página web. Así mismo, enviará la información por correo electrónico **desde la dirección [bulegoa@ulizarri.eus](mailto:bulegoa@ulizarri.eus) a la dirección señalada en la ficha de matrícula**.

## DUDAS, QUEJAS Y SUGERENCIAS

- \* Las hojas de sugerencias se encuentran en todas las aulas, así como junto al buzón de sugerencias situado en la entrada del centro, también en la página web [www.ulizarri.eus](http://www.ulizarri.eus) en el apartado **Alumno/a**. Las quejas o sugerencias deberán realizarse por escrito.